



MUSIKA

ENERITZ FURYAK

Unibertsoa loreetan emana

ENERITZ FURYAK UTZIA



XALBA RAMIREZ

Eneritz Furyak irundarra ez da belarri errazentzako artista izan inoiz. Izateko asmorik ere ez ziurrenik. Bere ahoskera eta harrabotsa franko-tiratzaile gisa erabiltzen zuen lehen, orain margolari moduan darabil eta gai da unibertso berri bat oparitzeko. Neuritu ditu disonantziak eta naretasun erabatekorik gabe josi du disko geldo eta eder-ederra.

“Fabrikazio sistematik at” dago –eta egongo da– Furyak-en *Emadan*, 2021ean autoekoiztua eta autograba-tua. Hemen ez duzu topatuko euskal merkatu txiki horretan hegemoniatxoa bilatuko duen undergroundez edo bazterrekoaz moztortzen den artistarik. Autentikotasun sena bere-berea du Furyakek, ezarritakoaren aurrean *lud-dita* baten antzera: erre azken pieza!

Gitarra da oinarri, baina sintetizagailuekin panorama kosmiko zabalak

koloreztatzen ditu. Izkander Fernandezek eder esan bezala, azalean dauden lore horiek izan daitezke bere musika, ilunaren baitan gehituz kolorea.

Errepikapena da nagusi diskoan, bakarrik konposatzean *looperrak* erraztu duelakoan akaso, eta kapak gehituz eraiki dira kantak. Une batean ordea, gantxo gisa funtzionatzen duten ihesaldiak ere baditugu, arreta berreskuratu eta kantari lotzeko, *Beltzaile* kantan errepikatzen den “i” horren gisan, jostailuzko sintetizagailu batekin bueltaka. Furyak, orain bezala lehen, asko jolastu du ahotsarekin eta soinuekin, eta orain une dibertigarriak eskaintzen ditu.

Maria Arnal eta Marcel Bagés-ek kaleratu berri duten *Clamor* diskoarekin batera entzuten ari naiz *Emadan*. A posteriori egindako entzunaldi gurutatu honek bi lanen arteko konexioak



EMADAN

ENERITZ FURYAK

AUTOEKOIZPENA, 2021

errazten ditu eta oihartzun egiten du Furyak-ek meteoritoetan, gizaki ez diren izakien arteko harremanetan, munduaren amaieran, eta munduaren hasiera berri batean. Donna Harawayren cyborgak eta Björk-en irudiak imajinatze gaitasunak bat egiten dute.

Mundu osoaren historia une bakar batean joan daiteke. Neguko gau bat, pianorik gabe, eraginkorra den droga-ren bat. Arnasa bat. Hutsune bat. Istanteen aldarrikapena dago *Emadan*-en eta lasaitasunerako gonbidapena. “Iraungiko haiz, sua bezala baina sua haiz, aspaldi ez bezala”.

Hauskortasuna eta ausardia batzen diren puntua da *Emadan*. Disko txiki batean unibertsoa kondentsatzeko gai. Gizaki adina izaki sartuko diren lore eta kolore sorta. Ez du errekorrik egingo ez Spotify-n eta ez Youtuben, baina marka utziko du zapaltzen duen lurrean. ●